

NOLA EGIN LUDOTEKA PARTE-HARTZAILEA



HERRI
HEZITZAILEA

4

- Herri Hezitzailea lantaldea:

Irrien Lagunak Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pil-pilean euskara elkarte, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Urtxintxa Bizkaia Eskola eta Ttakun Kultur Elkarte.

- Koaderno honen egilea eta eragilea:

Maialen Gorosabel Odriozola (Txatxilipurdi Elkarte)

- Maketazioa eta ilustrazioak:

Eñaut Aiartzaguena Bravo

-Argazkiak:

Otxandioko Iudoteka

- Inprenta:

Gertu inprimategia

- Babesleak:



- Bildumaren ISBN:

978-84-606-672-6

- Ale honen ISBN:

978-84-606-7250-0



Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **hauren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Eurek eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez** eta **ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

AURKIBIDEA

- LUDOTEKAREN IZAERA	6
- LUDOTEKA PARTE- HARTZAILE BATEN EZAUGARRIAK	8
- HELDUEN PARTE-HARTZEA LUDOTEKAN	10
- ARDATZ METODOLOGIKOAK	12
- EBALUAZIOA	15
- EKINTZA PROPOSAMENA	17

LUDOTEKAREN IZAERA

• *Zer da ludoteka?*

Ludoteka haur eta gaztetxoan aisialdian kokatuta dagoen jolaserako espazio bat da. Jolasa tresna moduan erabiliz, haurrei askatasunean pentsatzeko, sortzeko edota adierazteko aukera ematen dien espazio bat. Beldurrei aurre eginez, bakoitzaren gaitasunak indartuko dituen espazio bat, norberaren behar eta iritziak inork epaitu gabe azaltzeko gunea.

Horregatik, ludotekak aukera-berdintasunean, aniztasunean eta askatasunean hezteko leku bat izan behar du. Haurraren autonomia eta parte-hartzea bultzatuko dituen espazioa. Horrez gain, ludoteka sormena eta irudimena lantzeko oso espazio aproposa da, ludoteketan esperientzia hezitzaileak eta aberasgarriak bizitzeko aukera baitu haurrak.

• *Zer helburu ditu?*

Hezkuntza ez-formalak, hezkuntza formalaren funtzioak indartzeaz gain, hark dituen hutsuneak betetzeko lan

egiten du. Ludotekak, beraz, haurra osotasunean garatzea du helburu. Jolasa medio, hizkuntzaren eta balio hezitzaileen sustapenean lan egiten du. Ludotekak haurrari ikasteko askatasuna eman behar dio, norberak dituen beharrak eta mugak ezagutzeko, horiez jabetzeko eta onartzeko. Bai eta haur guztiak inolako eragozpenik gabe onartuak izateko ere. Denek lekua izango duten espazio bat izango da, guztien ezaugarrietara moldatutako espazio bat.

Baina ludotekako barne-espazioa ez da haurren jolasgune bakarra izango. Berorren paretetatik kanpo ere jolastuko dira. Kanpo-espazioak, kaleak, ez daude bereziki jolaserako egituratuta. Haurrei sormena erabiltzeko aukerak zabaltzen dizkie horrek, askotariko jolasak asma ditzakete, egituratutako espazioak sortzen dituen presioak eragin gabe. Horrez gain, euskararen erabilera kalera zabal dadin laguntzen du. Esan daiteke azken urteetan euskara espazio itxietara mugatu dela; horregaa



tik, haurrak kalean eta euskaraz jolas-ten badira, euskararen erabilera areagotuko da espazio horietan.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, herriko parke eta belardiak ere haurren jolasleku izango dira. Espazio zabalek gure zirrarak azaltzen eta doitzen laguntzen digute, erlaxatu egiten gaituzte. Beraz, naturarekin harremana sendotuz gero, autoestimua eta ongizate-sentsazioa bultzatuko ditugu.

Hala ere, parkeez gain, kaleak jolaserako erabiliko ditu ludotekak, aspaldian egin ohi zen modura. Izan ere, ludotekak auzoaren parte ere badira, hau da, komunitatearen parte. Tonucci pedagogo italiarrak (1998) dioenez, gaur egungo auzoak lotarako baino ez dira azken urteotan. Lehen benetako egongela, elkargune edota jolaserako gune izan arren, horietako asko lo-leku bihurtu dira azken urteetan, zoritzarrez. Baina, kaleak jolaserako eta solaserako erabiliz gero, ez al dira auzoak berpiztuko? Ez al gara komunitatearen parte sentituko?

Haurrek herriaren parte direla sentituz gero, beraien hitz eta iritziak kontuan hartzen direla ikusiz gero, parte hartzera animatuko dira. Baina benetako parte-hartzea ez da soilik haurrei hitza ematea eta entzutea; beharrezkoa da esaten duten hori beraiekin batera praktikara eramatea ere. Hala ere, ho-

rrek ez du esan nahi haurrek esaten duten oro gauzatu behar denik, beti ez baita posible izaten, balio hezitzaileekin bat egiten ez dutelako edota bestelako arrazoiengatik egingarriak ez direlako.

Ludotekako helburu garrantzitsuenetarikoak, beraz, balioetan hezteak izango da, adibidez, hizkuntzarekiko maitasunean, autoestimuan, besteekiko nahiz ingurunearekiko errespetuan, aniztasunean, autonomian, lankidetzan, laguntasunean, parte-hartzean...

Helburu horiek lortzeko, baliabideak eskainiko dizkio ludotekak haurrari.

“Ludotekak aniztasunean eta askatasunean hezteko leku bat izan behar du.”

“Beraien hitz eta iritziak kontuan hartzen direla ikusiz gero, parte hartzera animatuko dira.”

“Benetako-parte hartzea ez da soilik haurrei hitza ematea eta entzutea; beharrezkoa da esaten duten hori beraiekin batera praktikara eramatea.”



LUDOTEKA PARTE-HARTZAILE BATEN EZAUGARRIAK

Ludoteka parte-hartzaile batek hainbat ezaugarri izan behar ditu. Hala ere, lehenik eta behin, espazio aske moduan ulertu behar dugu, haurren garapenean mugak jarriko ez dituen espazio moduan.

Ludoteka parte-hartzaile batek hainbat ezaugarri bete behar ditu.

- Hasteko, ezinbestekoa da hurrei hitza ematea eta entzutea. Baina entzute horrek aktiboa izan behar du, enpatikoa eta haurren nahi eta beharrak identifikatuko dituena. Horregatik, hurrei hitza emango zaie, behar dutena esan eta adieraz dezaten.

Hala ere, hurrek adierazpenak askatasunez egiteko, garrantzitsua izango da zirraren kudeaketa lantzea. Ez da

zirrara txarrik ez eta onik ere egongo, guztiak bizitzeko eskubidea izango dute. Hezitzaileek zirrara horiez jabetzen lagunduko diete, horren ondoren onartzen eta doitzen ikasteko.

- Haurren denborak errespetatuko dituen gunea izango da, eta haien erritimora egokituko da. Aniztasuna aberastasun moduan ulertuko du, eta guztion ezaugarriak errespetatu eta onartuko ditu.

- Hurrei autonomia itzuliko dien espazio bat izango da. Beraien nahi, behar eta zirraretatik abiatuta, egin nahi dutena aurrera eramateko leku bat. Sormena sustatzeko eta erabiltzeko askatasuna emango diena.

- Haur talde heterogeneoa izango da.



Ezaugarri desberdinak edukitzeaz gain, garrantzitsua da adin-tarte zabala izatea. Elkarrengandik ikastea ahalbidetzen du horrek, eta lankidetzako ikaskuntza ere bultzatuko du. Haurren arteko elkarriketak sustatuko ditu, eztabaidak eta harremanak bultzatuz. Gainera, lehia saihestera eta adostu-tako konpromisoak betetzera eraman-
go ditu haurrak.

- Espazioak ere eragina du, eta, horregatik, espazioa egituratu gabea izango da, ahal den neurrian. Hau da, hurrek beraien gogo eta beharren arabera egituratuko dute ludoteka. Altzari eta jolasak ere lurrian finkatu gabekoak izatea komeni da, horrela, beraien espazioa unean unekora moldatzeko aukera izango baitute. Baina parte-hartzea ez da ludotekako lau pareten inguruan soilik jorra daitekeen gaia. Lehen aipatu dugunez, ludoteka parte-hartzailea nahi badugu, kalera eta, beraz, auzora zabalduko den espazio bat izan behar du. Auzoko komunitatera eta herrira zabalik egongo dena. Auzotik, auzora eta auzoarentzat.

- Ludotekan aurki daitekeen materialak esperimentazioa bultzatu behar du. Hurrei esploratzen eta esperimenta-

tzen lagunduko dien materiala izango da. Horrela, sormena eta autonomia sustatzen lagunduko die. Naturako elementuak (harriak, hostoak, hondarra ...) eta berrerabiltzeko materiala erabiltzea oso baliogarria izan daiteke, adibidez.

- Ludotekak harremanak izango ditu eragile sozial eta kulturelekin, herriko bizitza kulturean bete-betean sar dadin.

“Ez da zirrara txarrik ez eta onik ere egongo, guztiak bizitzeko eskubidea izango dute.”

“Haurren denborak errespetatuko dituen gunea izango da, eta haien erritmora egokituko da.”

“Auzoko komunitatera eta herrira zabalik egongo da. Auzotik, auzora eta auzoarentzat.”



HELDUEN PARTE—HARTZEA LUDOTEKAN

Helduek askotariko rolak bete ohi dituzte, haurrarekin duten harremanaren arabera. Rol horiek askotarikoak izan arren, garrantzitsua da eskutik lotuta joatea. Izan ere, ezinbestekoa da guztiek bide berberari jarraitzea, haurraren sinesgarritasuna lortu nahi bada.

Baina helduak ez daude hurrei entzuterara ohituta, eta askotan, gainera, haurrek beren iritzia emateko gaitasunik ez dutela uste izan dute. Baina, haurren parte-hartzea bultzatu nahi bada, garrantzitsua da helduek haurren gaitasun eta iritziekiko errespetua azaltzea; hau da, haurrek entzun eta esaten dutena errespetuz eta seriotasunez hartzea, garrantzia ematea. Horretarako, haurrengandik ikas dezaketela sinetsi behar dute helduek.

Gaur egun, haurren parte-hartzea mugatuta dago oraindik. Helduak ez daude ohituta hurrei behar edo nahi dutenari buruz galdetzerara. Haurren nahiak betetzen dituztela sinetsita, beraienak asetzen dituzte egiaz. Hori aldatu beharra dago, ludoteka parte-hartzailea lortu nahi bada.

Hezitzaileen rola

Hezitzaileak haurraren bidelagun izan

“Hurrei behatuko die, baina ez die esango zer egin edota zer sentitu behar duten.”

behar du. Haren gidari izan behar du, haren entzule, entzule aktibo. Hurrei behatuko die, baina ez die esango zer egin edota zer sentitu behar duten.

Hezitzaileak hurrei beren nahiak zein diren galdetuko die, eta beroriek lortzeko bideak bilatzen lagunduko die. Horregatik, hezitzailea ez da programazioan oinarrituko, haurren nahi, behar eta desiretan baizik; bideratzaile izatetik bidelagun izatera pasatuko da.

Ludoteka parte-hartzaile bat lortu nahi bada, haur guztien parte-hartzea bultzatu beharko du hezitzaileak. Horretarako, guztien ideiak jasoko ditu, eta denen artean akordioetara iristen lagunduko die, adibidez, garatuko diren ekintzak guztien artean adostuz.

Hori lortzeko, ordea, hainbat alderdi izango ditu kontutan hezitzaileak:

- **Arauen adostea:** Arauak guztien artean adostu beharko dituzte, eta guztiek izango dute arau horiek betetzeko betebeharra.

- **Komunikazio egokia:** Ludotekak espazio lasaia izan behar du, hau da, enpatikoa. Bakoitzak bere sentimendu eta zirrarak askatasunez adierazteko espazioa izango da, betiere errespetuan oinarrituta.

- **Gidaritza:** Haurren bidelagun eta laguntzaile izango da.

- **Ekarpenak jasotzea:** Haur guztien

ideiak batuko ditu, guztien iritzi eta ekarpenak kontuan hartuta.

- **Ezustekoei erantzutea:** Ezusteko gertaerei irtenbidea bilatuko die.

- **Gatazken kudeaketa:** Gatazkek kudeatuko ditu, baina bere rola zein den ahaztu gabe.

Familien rola

Familien rola ere garrantzitsua da, ludoteka parte-hartzaile batean. Familiak haurren parte diren heinean, ludotekaren parte ere izango dira. Horretarako, ordea, garrantzitsua da familiek ludoteka parte-hartzailea zer den jakitea eta ludotekaren helburuak zeintzuk diren ezagutzea, hezitzaileekin batera bide beretik joan daitezen. Familiak hezkuntza ez-formalaren funtzioak eta ludotekako proiektu hezitzailea ezagutu behar dituzte, helburua guztien artean lortu ahal izateko.

Familiak ludotekan parte hartzera animatu behar dira. Hurrekin batera jolasteko edota ekintzak proposatzeko eta gauzatzeko. Familiak hainbat jolasetan parte har dezakete, hala nola mahai-jolasetan, eskulanetan, futbolearen edo ezkutaketan. Eta hurrekin haien gustuko ekintzak edota abileziak ere parteka ditzakete; ipuinak kontatzea, errezetaren bat prestatzea edo artelaren bat egitea, adibidez. Hala ere, lehen aipatu dugunez, oso garrantzitsua da haurren erritmo eta ezaugarriak kontuan hartzea, edozein ekintza proposatzeko orduan.

Hurrek, oro har, positiboki balioesten dute beraien familiek ludotekan parte hartzea.

Komunitatearen rola

Ludoteka parte-hartzaile baten bizi-

tzan, garrantzitsua da auzoaren rola, auzotarrena, hots, komunitatearena. Izan ere, hurrek auzoan egin ditzaketen jolas edota ekintza askok komunitateari eragingo baitiote. Eta horrek eragina du haurrengan ere, jakina.

Komunitateak, alde batetik, haurren “zaintza” bermatu beharko luke. Auzoko hurrak eta, oro har, pertsona guztiak zaindu beharko lituzke, auzoa konfiantzazko leku bihurtuz. Horretarako, bizilagunek, inguruko denda, taberna eta elkarteek garrantzi handia daukate. Komunitatea guztiok osatzen dugula jakinik, auzoetako bizimoduari eusteko edota bizimodu hori pizteko beharrezkoa den guztia egin beharko dugu guztion artean. Auzoa, lo-leku baino areago, bizileku bihurtu behar genuke: auzoan jolastuz, elkartuz edota kontsumo-ohiturak auzoan bultzatuz. Horregatik, ludoteka auzoaren eragile bat dela esan genezake. Auzoan eta auzoarentzat lan egingo duen eragile bat.

Bestalde, errespetuzko bizikidetzeta lortu nahi bada, beharrezkoa da denen artean hitz egitea eta adostasunetara heltzea. Gaur egun, askotan entzuten da hurrek helduen lasaitasuna zapuzten dutela, helduek haurrengan duten eragina kontuan izan gabe. Horregatik, beharrezkoa da komunitatea adostasun batera iristea.

“Familiak ludotekan parte hartzera animatu behar dira. Hurrekin batera jolasteko edota ekintzak proposatzeko eta gauzatzeko.”

ARDATZ METODOLOGIKOAK

Espazioaren antolaketa

Ludoteka mugak dituen espazio fisikoa da, baina malgutasunez antolatu behar da, aukerak mugatu nahi ez bada.

- Ludotekako barne antolaketa

Ludoteka parte-hartzaile batean, garrantzi handia du espazioaren antolaketa. Izan ere, berori guztiz antolatuta badago eta, gainera, aldaezina bada, hurrek ez dute beraien beharretara moldatzeko aukerarik izango, eta, horren ondorioz, beraien sormena mugatuta egongo da alde zurretik.

Espazioaren antolaketa giro goxo eta lasaia bermatu behar duen arren, antolaketa hurrekin batera adostea da onena, beraien beharretara egokitua izatea nahi bada. Antolaketa finkoa izan gabe, altzariak, jolasak edota bestelako materialak ahal den neurrian mugikorrek izatea komeni da; hau da, egunero espazioa berrantolatzeko aukera emango dutenak. Ludotekan aurki daitekeen materiala ere hurren beharretara egokitua izango da. Adinaren, beharren eta interesen arabera izango da, eta esperimenzioa

eta sormena bultzatuko ditu. Baina, honetarako, garrantzitsua da materiala beraien altuerara egokitzea, adibidez.

Materialaren erabilerari dagokionez, hurrek askatasunez eta modu askotara erabiltzeko aukera izango dute. Hau da, mahaiak margotzeko edo eskulana egiteko erabiltzeaz gain, zergatik ez dira piraten itsasontzi edota mozorrodesfilea egiteko pasarela bihurtuko?

Hori guztia kontuan izanik, hurrek ludotekako espazioa eta materiala autonomoki antolatzeko eta erabiltzeko aukera izango dute.

- Kanpo-espazioa

Kanpo-espazioa ere jolasgune izan daiteke, eta, horregatik, jolasleku izateko baldintzak sortu behar dira. Kaleak, espazio arriskutsu moduan ulertu gabe, ikasteko aukerak emango dizkieten espazio moduan ulertu behar dira, bai eta auzoarekin harremanetan egoteko aukera ematen duten gune moduan ere.

Jolaserako kanpo-espazioa erabiliz, naturak eskaintzen dituen baliabideez gozatzeko eta ikasteko aukera izango dute hurrek; adibidez, urtaroei ematen dituzten oparixoez gozatzeko dute, eta ikasi egingo dute. Edo kaleetako altzariak aprobetxatuz, askotariko jolasak egingo dituzte. Zergatik ez dituzte zutabeak ezkutatzeko edo futbolerako ateak irudikatzen erabiliko? Zergatik

“Ludotekan aurki daitekeen materialak esperimenzioa eta sormena bultzatuko ditu.”

ez erabili espaloi ertzak oreka-jokoetara jolasteko?

Gainera, kanpoan jolastuz, inguruko denda, taberna eta bizilagunekin nahasiko dira, auzoari garrantzia emango diote, eta harremanen sarea ehunduko dute.

Programaziorik gabeko gunea

Ludoteka haurren nahi eta beharrak kontuan hartuko eta aseko dituen espazio moduan ulertzen bada, ez du zen-

tzu handirik hezitzaileak programazio itxi bat egiteak. Programazioa haurrek egingo dute unean dituzten beharren arabera, guztien artean adostuta.

Horretarako erabil daitekeen tresna bat biltzarra da. Modu askotara erabil dai-

“Programazioa haurrek egingo dute unean dituzten beharren arabera, guztien artean adostuta.”



teke, formalki edo informalki. Adostasun batera heltzeko balio du biltzarrak. Guztiak maila berekoak izango dira. Eta parte-hartzaile guztiak hitz egiteko eta adierazteko espazioa izango da, denen hitza eta ideiak kontuan hartuko diren espazioa.

Biltzarra heterogeneoa izango da, adin desberdinetako neska-mutilez osatua. Gainera, nahi duenak hartuko du parte, inor behartu gabe.

- Biltzar formalak

Biltzar formalak, deialdia eginez egingo den biltzarra izango da. Biltzar horretan, askotariko gaiak jorra daitezke: arauen inguruan, egin nahi diren ekintzen inguruan, lanak banatzearen inguruan, etab.

Haur eta hezitzaileek hainbat rol izango dituzte biltzarrak egiteko orduan. Nahiz eta hasieran hezitzaileek gidari lanak egin, hurrek hartuko dute rol hori gerora, eta hezitzaileek laguntza eskainiko diete behar dutenean.

Lehenengo biltzarrean, arauak, hitza nola eman, rolen banaketa eta akta nola jaso adostuko dira. Adibidez, hainbat

objektu erabil daitezke hitza emateko. Akta, berriz, koaderno batean edota arbelean jaso daitezke, hitzez edo marrazkiz (haurren nahi eta ezaugarrien arabera).

Hurrengo biltzarretan, arauak gogoratuko dira berriro, eta jorratu nahi diren gaiez hitz egingo da.

Biltzarretako rolak umez ume txandakatzen joan daitezke, haurren nahien arabera: gidaria, hitza emango duena, akta jasoko duena ...

Kontuan izan behar da, parte hartuz ikasten dela parte hartzen. Horregatik, hurrek beraien denbora beharko dute parte hartzen ikasteko.

- Biltzar informalak

Biltzar informala une jakin batean adostasunera iristeko edota mementoko ideiak batzeko bilguneari dei geniezaioke. Zertara jolastuko garen eta jolasak zer arau dituen zehaztuko den unea izan daitezke, adibidez.

Biltzar informala deialdirik egin gabe sor daitezkeen elkarrizketei, eztabaidei eta horrelakoei ere dei geniezaiokie; horrelako uneak ere oso baliagarriak izaten baitira adostasunetara iristeko eta erabakiak hartzeko, edo, besterik gabe, iritziak edo ikuspegiak partekatzeke.

“Parte-hartzaile guztiak maila berekoak izango dira eta denen hitza eta ideiak kontutan hartuko dira.”



EBALUAZIOA

Ebaluazioak ludotekan nolako parte-hartzea dagoen ikusarazteko balio du. Zer pauso eman diren, zer lortu den edota zer hobetu daitekeen ikusarazteko.

Hezitzaileen ebaluazioa

Hezitzaileek, une oro, haurren parte-hartzeari erreparatuko diote.

Egunero, hausnarketa txiki bat egingo dute haurren parte-hartzea nolakoa izan den ikusteko. Zer ekintza edota jolas egin diren, beraien arteko harrema-

nak nolakoak izan diren, adostasunetara nola iritsi diren, modu autonomoan ibili diren edo hezitzaileen laguntza zenbateraino eskatu duten aztertuko dute, adibidez.

Hezitzaileek beraien autoebaluazioa egitea ere garrantzitsua da, haurrei

“Hezitzaileek beraien autoebaluazioa egitea ere garrantzitsua da.”



parte hartzen utzi dieten edo mugak jarri dizkieten ikusteko.

Familiaren eta komunitatearen ebaluazioa

Familiaren eta komunitatearen ebaluazioak jasotzeko orduan, askotariko tresnak erabil daitezke. Hauekin ere biltzarrak egin daitezke, bakoitzaren iritzia edota hausnarketak jasotzeko. Biltzar formalak edota informalak izan daitezke, eta azken horiek gailentzen dira normalean. Galdetegiak ere erabil

daitezke haien iritziak eta proposamen berriak jasotzeko, eta, azkenik, proposamenen kutxa bat ere jar daiteke haien eskura, proposamen, kezka edota iritzi ezberdinak jasotzeko.

Haurren ebaluazioa

Haurren sentipen eta iritziak jasotzeko ere biltzarraz balia gaitzke. Biltzar horiek formalak edo informalak izan daitezke, eta talde handian edota talde txikian egin daitezke, haurren izaera eta nahiak kontuan harturik.

Ezin da ahaztu haurren ebaluazioek berebiziko garrantzia dutela. Izan ere, beraien iritziak garrantzitsuak dira, ludo-teka benetan hurrekin batera egin nahi badugu.

“Ezin da ahaztu haurren ebaluazioek berebiziko garrantzia dutela.”



EKINTZA—PROPOSAMENA

Teoriatik praktikara abiatzeko pausoak zeintzuk diren azalduko dugu ondoren. Kontuan izan behar dugu errealitate bakoitza desberdina dela eta beharrezkoa izango dela eman beharreko pausoak hainbat egoeratarara moldatzea. Ludoteka bakoitza osatzen duten haurren taldea, komunitatea, herriaren beharrak eta abar desberdinak dira, eta horietara moldatu beharko dute.

Hala ere, zenbait pauso orokor zehaztuko ditugu:

1.- Herria ezagutu, eta herritarren beharrak identifikatu eta hausnartu

Ludoteka parte-hartzaile bat abian jartzeko lehen pausoa herria ezagutzea izango litzateke. Herriak eta auzoak dituen beharrez jabetzea eta horien inguruko hausnarketa egitea. Ezin dugu ahaztu haurrak kontuan izan behar ditugula herritarren beharrak identifikatzen ditugun une guztietan, are gehiago, ludoteka parte-hartzaile bat sortu nahi badugu, azken finean, ludoteka haurren espazioa izango baita batik bat.

Beharrak identifikatzeko orduan, esparru askotara jo dezakegu: hezkuntza-komunitatera (hezkuntza formalaz, ez-formalaz eta informalaz osatuta egongo dena), herrigintzara, bai eta udalera ere. Modu horretan, haur, guraso, hezitzaile, dendari eta, oro har,

herritar gehienengana iritsi gaitzke.

Prozesu horri sentsibilizazio-prozesu dei geniezaioke, haurren parte-hartzearen garrantzia landuko duen prozesua baita. Sentsibilizazio-prozesu horretan, proiektu hezitzailea aurkez dezakegu, eta honen onurak ezagutzaraz ditzakegu, lantzen diren balio hezitzaileen berri ere emanez.

2.- Prestakuntza

Sentsibilizazio- eta hausnarketa-prozesua garatu ostean, beharrezkoa da ludotekan egongo diren hezitzaileentzat prestakuntza-saioak antolatzea. Ludoteka parte-hartzaile bat sortzeko pausoak azaldu behar dira, landuko diren balioak adostu, hezitzaileek zer rol izan behar duten jakin eta hori aurrera eramateko baliabideak eskaini.

Garrantzitsua da kontuan izatea neurri handi batean hezitzailearen arabera izango dela ludoteka bat parte-har-

“Errealitate bakoitza ezberdina da eta beharrezko izango da eman beharreko pausoak hainbat egoeratarara moldatzea.”

“Hezitzailearen arabera izango da ludoteka bat parte-hartzailea edo ez.”

tzailea edo ez. Hau da, hezitzaileak ahalbidetu edo mugatu dezake haurren parte-hartzea, hartzen dituen rol edo jarreraren arabera.

3.- Espazioaren antolaketa

Jolaserako erabiliko den espazioa kanpoko espazioa nahiz barrukoa izan-gu da.

Barne-espazioaren antolaketan eta han aurki daitekeen materialaren inguruan, hainbat kontu hartuko dira aintzat:

- a)** Espazioa ez da modu finkoan antolatuta egongo. Altzariak eta jolasak mugikorrek izango dira ahal den neurrian, hurrek beraien beharretara moldatzeko.
- b)** Hurrek materiala eskura izango dute, eta, horretarako, kontuan izango da hurren altuera ere.
- d)** Materialak esperimenezioa bultzatuko du, hala, sormena ere sustatuz.
- e)** Ludotekako jolasak lankidetzan oinarritutakoak izatea nagusituko da, horrela, hurren arteko harremana sustatuko baita.

4.- Biltzarrak

Hurrekin erabakiak hartzeko guneak izango dira biltzarrak. Berorien maiztasuna beharren arabera izango da, eta edonork izango du biltzarrerako deia egiteko aukera. Biltzarrak aurrera eramateko, pauso hauek eman daitezke:

a) Biltzarrak egiteko txokoa aukeratuko da.

b) Arauak adostuko dira denen artean.

d) Rolak banatuko dira hurren artean: hitza emango duena, akta jasoko duena, etab.

Biltzar horietan, hurrek ludotekan egin nahi dutena aukeratuko dute, eta eskulan, ekintza edota proiektuak izan daitezke. Guztien artean adostuko dute zer eta nola egin behar duten hori guztia aurrera eramateko, eta hezitzaileek horretan lagunduko diete.

5.- Proiektuak

Ludoteka parte-hartzaile batean hurrek gauzatu nahi dituzten proiektuak proposatzen dituzte. Horretarako, biltzarrak erabiltzen dira, lehenengo ideia-zaparrada bat egiteko eta, gero, guztien artean zer proiektu egingo den adosteko.

Proiektua adostuta dutenean, berori aurrera eramateko eman beharreko pausoak zerrendatuko dira, eta denen artean lanak banatuko dira. Hezitzaileek hurrei bide horretan lagunduko diete, baina hurrek izango dira protagonistak.

Proiektuak gauzatzekoan, zailtasunak agertuko dira, eta hurrek, hezitzaileon babesaz, nola gainditu pentsatuko dute.

Ludoteka parte-hartzaileetan, hurrek hainbat proiektu eraman ohi izan dituzte aurrera: esne-kaxez eginiko etxetxoak, berrerabiltzeko materialaz eginiko labirintoa edota kaxez eginiko agertokia, adibidez.

Proiektu horiek garatzeko orduan,

“Guztien artean adostuko dute zer eta nola egin.”

kontuan hartu dira haurren erritmoak, ezinbestekoa baita denboraren kudeaketa haurrek markatzea, eta ez helduek.

6.- Etengabeko ebaluazioa

Ludoteka parte-hartzaile batean etengabeko ebaluazioa izatea garrantzitsua da, eta haurrekin, familiekin zein komunitatearekin egin behar da hori.

a) Hezitzaileen ebaluazioa:

- Haurren parte-hartzea ebaluatuko dute.
- Hartutako rolen autoebaluazioa egingo dute.

b) Haurren ebaluazioa:

- Biltzar formalak eta informalak erabiliko ditugu haurren iritziak jasotzeko.

c) Familien, komunitatearen eta, oro har, herriaren ebaluazioa:

Askotariko tresnak erabil daitezke ho-

rien iritziak eta ebaluazioak jasotzeko.

Besteak beste:

- Biltzarrak; formalak edota informalak.
- Galdetegiak.
- Proposamen, iritzi edota kezak jasotzeko kutxak.

“Ezinbestekoa da denboren kudeaketa haurrek markatzea eta ez helduek.”

“Ludoteka parte-hartzaile batean etengabeko ebaluazioa izatea garrantzitsua da, eta haurrekin, familiekin zein komunitatearekin egin behar da hori.”



HAURREN AISIALDI PARTE—HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN

Koaderno bilduma:



Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen



Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik



Nola egin udaleku parte-hartzailea



Nola egin ludoteka parte-hartzailea



Parkeak bizitzeko modu berriak